

JON MIRANDA LABAEN



ANOETA

BASOA BIZITZEN ERDIGUNERA

Eskutuko Haziak taldeak basogintzari buruzko ikerketa bat garatu du, Anoeta ikergai hartuta; lurraldearekiko kontrola berreskuratzeko beharraz ohartaraziz, bihar aurkeztuko dituzte ikerketaren emaitzak, herritarren aurrean // 3

**Banda
ultrazkarretik
kanpo geratu
izana salatu
dute Bedaion**

Gipuzkoako Foru Aldundiak abiarazitako egitasmotik kanpo geratu da auzoa eta, besteak beste, interneteko konexio egokirik gabe daude // 5

Ibaraskak!
herrian erosteak

SARIA
dauka

apirila eta maiatzean zehar
ZUPA AMETSETAKO BIDAIA
EGITEKO 1.500€-KO
OPARI TXARTELA
"MIRA BIDAIAK"-en
* ez da inolara ere eskudirutan emango

ZORTE ON

BARAKO UDALA | barakho | Euzko Lehiaketa

**TAO zerbitzua
mugikorraren
bidez ordaindu
ahal izango da
Tolosan**

Mugipark aplikazioa jarri dute, herritarren eskura, aparkalekuen tramiteak errazteko asmoz; ez da TAOren paperezko agiririk inprimatu beharko // 2

**Eskubaloiko
jubenilak,
Espainiako
txapelketaren
atarian**

Tolosa Eskubaloia taldeko kideek Alacanten jokatu beharko dute lehiako lehen fasea, datorren asteburuan, hiru norgehiagoka jokatuz // 7



Frontoia, margotuta. I. SAIZAR

**Berrikuntzak
eginda, zabalik
da, berriro,
Belauntzako
pilotalekua**

5.000 euroko inbertsioa eginda, udalak LED teknologiadun argiteria ezarri du, eta berriro margotu dute pilotalekuaren izena // 6

Jada mugikorrarekin ordain daiteke TAO zerbitzua, Tolosan

Parkimetroetako tramite guztiak egin daitezke, Mugipark aplikazioa erabiliz; zerbitzua doakoa da, baina aparkalekua kreditu txartelarekin ordaindu behar da.

Josu Artutxa Dorronsoro

Martxoa amaieraz geroztik, abian da, Tolosan, TAO aparkaleku gunetan ordainketak mugikorrarekin egiteko sistema. Udalak jakinarazi duenez, erabiltzaileek, TAO makinetan egin diren eragiketa guztiak mugikorrekin egin ahal izango dituzte, aurrerantzean. Tolosako Udaltzaingoa nabarmendu duenez, herritarrek eta bisitariek, «erosotasunean eta erraztasunean» irabaziko dute, edonon egonda ere, urrundik kudeatu baitaiteke zerbitzua, autora bertaratzeko beharrik izan gabe, mugikorrean bertan.

Mugipark aplikazioaren bitartez egin ahal izango dira tramite guztiak. Android eta IOS sistementzako dago erabilgarri, eta doakoa da, baina ordainketa kreditu txartelaren bitartez egin behar da. Honako urratsak jarraitu behar dira, zerbitzua erabiltzeko: aplikazioa deskargatu; kontua sortu, helbide elektronikoa eta pasahitza ezarri; autoaren edo autoen matrikulak sartu; eta kontua kreditu txartel bati lotu.

Zerbitzu horri esker, parkimetroetako tramite guztiak egin daitezke: ordainketa makina erabili gabe egin; aparkatze denbora luzatu edota uneko beharretara egokitu; isunak kudeatu, eta froga-agiriak eskuratu. Ordainketa mugikorraren bitartez eginda, ez da kotxean ordainagi-



Aurrerantzean, Mugipark aplikazioa erabiliz egin daiteke ordainketa. J.A.

ririk utzi beharko, TAO kudeatzaileak matrikularen bitartez egiaztatuko baitu ordainketa.

Bestalde, aplikazioak, aparkamenduaren berri ematen du, ordutegiari edota ordainketa luzatzeko aukerari buruz. Gainera, erabiltzaileak ordaindutako denbora osoa erabiltzen ez badu, sistemak dagokion zenbatekoa itzuliko dio; alegia, aparkatzearen denbora zehatza ordainduko da. Aplikazioan matrikula ezberdinak ere sar daitezke, ordainketak egin ahal izateko.

SETIK 1EK, TXARTELAREKIN

Iaz, 524.600 tramite egin ziren TAO zerbitzuan; hiler, batez beste, 45.000. Martxoan izan ziren gehien: 48.000. Abuztuan, berriz, gutxien: 33.000. Gero eta nabariagoa da, erabiltzaileek

erosotasuna bilatzen dutela, eragiketa guztien %19,5 kreditu txartelarekin ordaindu baitziztuzten, eta %80,5 esku dirutan. Zalantzaren bat duenak, zerbitzua kudeatzen duen Gertek enpresarekin jarri beharko du harremanetan, Rondilla kaleko bulegora joz, 943 67 08 52ra deituz, edo otatolosa@gerteksa.com helbidera mezua idatziz.

OROTARA, 5 TAO GUNE

Egun, 5 eremutan banatzen da Tolosako TAO zerbitzua, kolorez identifikatuta, eta ezaugarri ezberdinetako aparkalekuekin. Eremu gorrian, esaterako, bertakoek soilik dute ibilgailua uzteko aukera. Berdean, berriz, egun erdiz edo egun osoz utz daiteke. Urdinean, marroian eta zurian, hurrenez hurren, gehienez 4 orduz, 2 orduz eta 20 minutuz egon daiteke ibilgailua. Eremu berdeko eta urdineko zerbitzua doakoa da, baina soilik bertako txartela dutenentzat. Azkenik, zalmalanen gunea dago, horiei dagokien ordutegitik kanpo, TAO eremua bihurtzen dena.

Gastronomiari, kulturari eta historiari gorazarre, Aste Santuan

Larunbatean ospatuko dute ardo zuriaren azoka; kontzertu berezi bat, bisita gidatuak, erakusketak eta tailerrak ere izango dira.

J. Artutxa

Apirilaren 13a, 21. Korrikarako eta dantzarako ez ezik, Aste Santuko oporraldiko planen abiapuntua izango da, Tolosan. Hainbat egunetarako, egitarau zabala antolatu dute herritarrek. Larunbatean ekingo zaio egitarauari, III. Gure Ardo Txuri Txokoa azokarekin. Gure Txokoa elkarrekin antolatuta, 11:30ean irekiko dute gunea.

Euskal Herriko nahiz Espainiko 11 upategik hartuko dute parte. Besteak beste, Nafarroako Castillo de Monjardin, Errioxako Marques de Caceres eta Luberrri eta Getariako Hika, Hiruzta eta Mokorora txakolinak. Gainera, 1990 eta Orbela tabernetako pintxoak dastatzeko aukera izango da, euro baten truke. Kopa batek, berriz, 5 euro balioko du, nahi adina ardo dastatzeko aukerarekin.

SANTA MARIARA ERE BISITAK

Aste Santuetako eskaintzari bihar ekingo dio Tolosako Musika Bandak. Zarzuelak ardatz hartuta, kontzertu berezia eskainiko du, Topic-en, bi sopranoren laguntzarekin: Elisa Di Prieto eta Klara Mendizabal.

Bestalde, Tolosako ondare historikoa ezagutarazi eta balioa emateko asmoz, bisita gidatuak antolatu dituzte. Aurrez egindako bisiten arrakasta ikusirik, Santa Maria elizak berriz zabalduko ditu ateak bisitarientzat. Lehen bisitak larunbat honetan izango dira eta, gero, ostegunetik igandera (10:00-18:00). Interesa dutenek, Tolosaldea Tour turismo bulegoan, 943 69 74 13 zenbakira deituz edota tour@tolosaldea.eus helbidera mezua bidaliz eman dezakete izena.

Azkenik, Topic-en ere eskaintza berezia izango da. Museoa- ren ordutegia luzatuko dute, eta hilaren 13tik 28ra bitarte egunero egongo da zabalik. Inauguratu berri duten erakusketaz gain, bisita gidatu antzeztuak eta tailerrak izango dira. 943 65 04 14ra deituz eman daiteke izena.

Berdintasuna bultzatzeko diru-laguntzen bilera, gaur

TOLOSA // Udaleko Berdintasun departamentuak diru-laguntza lerro berria onartu du, tartean, parekidetasuna bultzatzen dutenena. Horiek eskatzeko interesa izan dezaketen talde nahiz pertsonentzat bilera informatiboa izango da, gaur, arratsaldeko 19:30ean, kultur etxean. Azken urteetan diru-laguntza eskatu dutenak, nahiz lehen aldiz eskatzeko asmoa dutenak ere joatea garrantzitsua dela azaldu dute.

Hauteskundeetarako informazio guztia eskuragarri, Udaten

TOLOSA // Maiatzaren 26an Europako, Udaletako eta Batzar Nagusietako hauteskundeak dira eta, ikusgai daude hauteslezerrendak, Udaten, nahi duenak erreklamazioa jartzeko. Astelehenera bitarte egongo dira, aste-gunetan (07:15 -14:15). Erreklamazio bat jartzeko, beharrezkoa da indarrean dagoen NANA aurkeztea. Horrez gain, bozkatzeko mahaiak eta lokalak ere kontsultatu daitezke.

Igandean, Gibixo mendikatean ibilaldia, Alpino Uzturrerekin

TOLOSA // Igande honetarako, Arabara irteera antolatu du Alpino Uzturre elkarteak. Bi ibilbide ezberdin izango dira (15 km eta 22 km). Marinda, Arangatxa eta Alto del Corral mendiak igoko dituzte. 07:30ean abiatuko dira San Frantzisko eliza ataritik. Izen ematea, 943 65 27 89 telefono zenbakira deituz edo info@alpinouzturre.eus helbidera idatziz egin daiteke (bazkideek, 13 euro; gainerakoek, 15).

Galtzaundi irakurle taldearen saio berria, datorren astean

TOLOSA // Apirilaren 17an, asteazkena, egingo du hurrengo saioa Galtzaundiren irakurle taldeak. 19:00etan hasita, kultur etxean izango da. Virginia Wolfen *Dalloway* Andrea eta Emakumeen lanbideak edo *Ettxeko Aingerua* hiltzea izango da landuko duten irakurgaia, Itziar Diez de Ultzurrunek eta Ana I. Moralesek euskarara itzultutakoa. Yurre Ugartek dinamizatuko du, guztiz irekia izango den saioa.



IRAGARKI LABURRAK

Zure iragarki laburra argitaratzeko deitu **943 65 56 95** zenbakira, idatzi ataria@ataria.eus helbidera edo pasa ATARIA-ko bulegotik.

Iragarki guztiak iragarkilaburrak.eus-en

Agroekologiaren eredua, nekazaritzaz eta abeltzaintzaz harago, basogintzara aplikatzea proposatu du Eskutuko Haziak taldeak; bihar, Anoetan, egin duten ikerketaren ondorioak aurkeztuko dituzte.

Eta basoari begira jarriko bagina?

Jon Miranda Anoeta

Basoari bizkarra emanda bizi izan gara orain arte. Gizartean, oro har, ez da gaiaren inguruko eztabaidarik egon, eta oso jende gutxik diseinatu izan du baso politika, «interes oso jakinak asetzeko». Hala uste dute Eskutuko Haziak taldeko kideek, eta hausnarketarako gogoia pizteko proposamena landu dute. Agroekologiak proposatzen dituen ildoetatik basora gerturatzeko gonbita da, azken batean, egin dutena: «Gizartean sortzen diren harremanen isla da basoa eta, hortaz, lurraldea ulertzeko beste era bat da proposatzen duguna, osasuntsuagoa eta jasangarriagoa». Bihar, Anoetako gazte txean, 18:00etan, aurkeztuko dituzte egindako ikerketaren ondorioak.

«Zer da basoa?» galderari ertz askotatik erantzun diote, EHuko Hegoa institutuak eta EHNE Bizkaia sindikatuak antolatutako *Baserritik mundura* ikastaroko ikasleek. Gipuzkoa inguruko bost ikasle batu eta Eskutuko Haziak taldea sortu dute, ikergai gisa Anoeta hartuz. Maddi Sarasola herritarrek azaldu du zergatia: «Udalak aurretik bazuen lanketa bat egin, landa garapenaren inguruan, eta aproposa iruditu zitzaigun ikerketa hemen garatzea».

Ikerketa Ekintza Parte hartzailea (IEPH) metodologia erabili dute lanerako, eta lehenengo sektorearekin nolabaiteko harremana duten eragileekin bildu dira. Mikel Agirre taldeko kideak aipatu duenez, hasieratik zuten hipotesia indartu zitzaizen, jendearekin hitz egin ondoren: «Ikusi dugu, bere garaian basoak ekonomian zuen zentraltasuna desagertu egin dela. Erdigunetik oso aparte geratu da. Ez da jendearentzat kezka bat. Basoa ez da agenda politikoa egon eta, oso adierazgarria den zerbaite gertatzen ez den arte, inork ez du horri buruz hitz egin». Taldeko kideek aurreko udan *insignis* pinuei erasan zien gaitzari egin diote erreferentzia.

Horrek, neurri batean, propo-



Eskutuko Haziak taldekoek ibilaldia egin zuten, aurreko larunbatean, Anoetako basoaren bilakaera azaltzeko. ATARIA

samena ia hutsetik eraiki behar izatera bultzatu ditu taldekideak. Eta definizio zehatz bat eman baino, nahiago izan dute, basoa, bere baitan gauza asko barne biltzen dituen «ekosistema konplexu bat» bezala hartu.

EREDU HEGEMONIKOA

Eskutuko Haziak taldeko kideek, landatzeetatik bereizi nahi izan dute basoa. «Gaur egun, mendian ikusten dugun guztia baso kontsideratzen dugu, baina landatzea da gehiena; espazioaren %70etik gora hartzen du». Ereduezberdinak egon daitezkeen arren, kritiko azaldu da Agirre gaur egun nagusitu den landaketa eredu hegemonikoarekin: «Desastre bat da. Merkaturatu produktua konkretu bat ekoiztera bideratuta dago landatzea, eta ez oinarritzeko beharrian batzuk asetzera. Gaur egun, eta hemen, pinua da nagusi. Kalitate baxu-

koa eta azkarra den produktua, papererako edo paketatzeak paleak egiteko erabiltzen dena». Ereduezberdinak, basoak berezkoak dituen biodibertsitatea eta espezie aniztasuna ez dituela errespetatzen uste dute, taldeko kideek. «35 urtetan ziklo guztia hasi eta bukatu egiten da, basotze prozesuari beharrezko duen denbora eman gabe. Horrek ekosistema oso ahulak sorrarazten ditu, askotan oreka hautsiz, eta gaixotasunak ekarritik. Merkatu global baten logikaren baitan, papera ekoizten aritzen gara, horretarako gure mendiak sakrifikatuz».

Ioritz Iparragirre taldeko beste kideetako batek aipatu duenez, problematika guztiari agroekologiatik begiratu erantzun nahi izan diote. «Nekazaritzan edo abeltzaintzan landu izan den eredua interesgarria iruditzen zaigu, printzipio batzuk jasotzen dituelako: tokian tokikora egokitu-

takoa ekoiztea, bertako lurraldea errespetatuz, pertsonak erdiguneari jarritik eta kontsumo eredu basatiak alboratuz. Zergatik ez horrelako kudeaketa eredu bat basoarentzat?».

BASOA, KULTURA DA

Ikerketa ez dute ikuspegi ekonomikotik bakarrik bideratu. Egun goera horretara iristeko, atzean egon diren arrazoiak aztertutuz. Irakurketa historikoa egin dute, lurraldearen bilakaerari dagokiona, eta gizarteak izan duen eraldaketa sozio-demografikoa aztertuz. Iparragirrek azaldu du, «jabetza komunala galdu eta pribatizazioak hasi zirenean, horrek eragin zuzena» izan zuela basoaren kudeaketan: «Guk aldarrikatzen dugu publiko/pribatu dikotomia gaindituko duen eredu bat, basogintza, ez goitik behera, baizik eta horizontalki kudeatuko duena. Lurraldearekiko

kontrola berreskuratu, eta erabakitzeko gaitasuna izan behar du komunitateak».

Genero ikuspegia ikerketako zeharlerro bezala landu dutela aipatu du Sarasolak: «Emakumeak ez gara ageri basoari lotuta. Hori zergatik gertatu den jakiteko, begiratu behar dugu nola eskualdatu diren lurrak, nola gertatu diren oinordekotzak, aietatik semeetara, eta nola kendu dieten erabaki ahalmena emakumeei. Beste galdera bat botako dut: gaur egungo baso eredua hain produktiboa, azkarra eta homogeneoa izango al litzateke, erabakiguneak hain maskulinoak izan ez balira? Maskulinitate eredu jakin bati ere erantzuten dio daukagun basoak».

Iparragirrek aipatu du, «gizarteak lotzeko eta kultura sortzeko» funtzioa ere baduela basoak, eta harreman horren balio sinbolikoa ez dela gutxietsi behar. Eskutuko Haziak taldekoek bide eman nahi diote horri eta, horretarako, Anoetako Herri Ikastolarekin elkarlanean, proiektu pedagogikoa landu dute. Lehen Hezkuntzako 3. mailako ikasleek saioak egin dituzte, eta basoarekin harremana berreskuratzen saiatu dira, besteak beste, sendabelarren inguruko tailerrak eskainiz. «Iniziatiba, ikasleen esku utzi nahi izan dugu, biziko duten esperientzia horren arabera izango delako, basoarekin duten harremana».

Jakintza akademikoa eta herri jakintza uztartu nahi izan dituzte ikerketa garatzeko, eta bizi dugun ingurua ulertzeko beste modu bat partekatuta nahi dute, interesa duten guztiekin. Horregatik iruditu zaie interesgarria, maila akademikoan egindako ikerketa herritarrekin partekatzea. Anoetako gazte asanbladarekin elkarlanean, ekoizle agroekologikoekin mahai ingurua antolatu zuten, martxoaren 22an, eta mendi ibilbide bat, joan den larunbatean. Bihar, herritarren aurrean, ikerketa publiko egingo dute. «Guk ekarpen teoriko bat egin nahi izan dugu, eta eztabaidarako tresna bat eskaini». Basoa erdigunera ekarri eta plazara ateratzeko aukera izango da, beraz, bihar Anoetako Gaztetxean.

«Maskulinitate eredu jakin bati ere erantzuten dio, daukagun baso ereduak»

MADDI SARASOLA
ESKUTUKO HAZIAK

«Erdigunetik oso aparte geratu da. Ez da jendearentzat kezka bat. Basoa ez dago agenda politikoa»

MIKEL AGIRRE
ESKUTUKO HAZIAK

«Lurraldearekiko kontrola berreskuratu eta erabakitzeko gaitasuna izan behar du komunitateak»

IORITZ IPARRAGIRRE
ESKUTUKO HAZIAK

Akuarelaz pintatutako momentuak

Alegiako Erretirodunen tabernan Maria Jose Labourdique billabonatarrak margotutako koadroak daude ikusgai; apirilaren amaierara bitarte bertan egongo dira.



Hainbat koadro daude, zintzilik jarrita, Erretirodunen tabernan. ATARIA

Eneritz Maiz Etxarri Alegia

Alegiako Erretirodunen tabernako paretek hitz egingo balute, gauza asko izango lituzkete esateko. Eguneroko joan-etorriak ikusteaz gain, pareta horiek urtetan izan dira, koadro eusle.

Egile ugariren erakusleihen da Alegiako plazan dagoen taberna, eta, oraingoan, Maria Jose Labourdiqueren akuarelaz egindako koadroen txanda da.

Hilabete amaiera bitarte egongo dira, bisitarien zain. Labourdique Baionan jaio bazen ere, duela ia 50 urtetik, Amasa-Villabonan bizi da. Akuarela du gustuko, eta koadroetarako bere argazkiekin lan egitea gustatzen zaio: «Senarrak argazki asko ateratzen ditu bidaietan, eta bera da nire iturria. Bestela, interneten bilatzen ditut».

Koadro asko ditu pilatuta etxean, eta saltzeko ez du arazorik. Gustukoren bat izanez gero, erosteko aukera eskaintzen du billabonatarrak.



Argi-itzalak margotzea gustatzen zaio Labourdiqueri. ATARIA

«Urarekin jolastea da gustatzen zaidana»

MARIA JOSE LABOURDIQUE
MARGOLARIA

E. Maiz Amasa-Villabona

Noiz hasi zinen koadroak pintatzen?

2006-2007 urtean hasi nintzen. Gabonetako txartelak-eta pintatzen nituen, Kutxako pintura ikastaro batean izena eman nuen arte. Niri akuarela gustatzen zait, eta ez daude akuarela-kin lan egiten duten asko. Urte batzuz aritu nintzen, Donostian Katalina de Erauso Arte Elkartearen berri izan nuen arte.

Bertara joaten hasi zinen?

Bai. Bertan talde batekin aritzen naiz, eta akuarela bakarrik erabiltzen dugu. Eduardo Saldaña akuarela-margolaria da, eta berak gidatzen du taldea.

Zergatik aukeratu zenuen pintura?

Betidanik gustatu izan zait, baina ez neukan denborarik pinturari eskaintzeko. Beti esaten nuen, erretiroa hartzean hasiko nintzela, eta horrela hasi nintzen.

Zer ematen dizu margotzeak?

Egunerokotasunetik ihes egiteko aukera ematen dit. Era berean, erronka bat da niretzat. Argi eta itzalak margotzea gustatzen zait; lainoa. Eta, batzuetan, modeloen gogo aldarteak harrapatu nahi izatea ere bada.

Beraz, akuarela duzu gustuko.

Bai. Esan izan didate olio edo akrilikoa probatzeko, baina ez

dut nahi. Ni akuarela erakartzen nau. Ez dut besterik probatu nahi. Urarekin jolastea da gustatzen zaidana.

Oraindik ere Donostiako akuarela tailerrera joaten zara.

Bai. Oraindik ere ikasten jarraitu beharra daukat eta, gero, taldean egoteak ere laguntzen du. Lantzeko gaiak jartzen ditugu, eta taldean hizketan aritzea pizgarria da.

Etxean pintatzen duzu?

Ia egunero. Batzuetan goizetan bakarrik eta, beste batzuetan arratsaldean ere jarraitzen dut.

Alegian erakusketa jarri duzu. Gustatzen zaizu jendeak zure lanak ikustea?

Bai, bai. Trastelekuan pilatuta edukitzea baino hobea da. Horrela, lokal edo taberna bat apaintzen dute, eta jendeak ikusten ditu. Eta jendearen iritziak jasotzea ere gustatzen zait.

Orain zein koadro duzu esku artean?

Elurrez tapatutako belar meta batzuekin ari naiz. Irakasleak jarritako lan bat da. Eta, egin dudan azkena, berriz, Asteasun abandonatuta dagoen erretako kotxe bat izan da. Kolore askorekin jolasteko aukera eman dit.

Zenbat denbora behar duzu koadro bat bukatutzat emateko?

Gaiak asko erakartzen banau, eta goiz eta arratsalde aritzen bannaiz, bi egun nahikoa ditut. Normalean, astebete baino lehen bukatzen ditut.



ORIA  BEILATOKIA
TANATORIO

Usabal Ind., 12. 20400 Tolosa
943 69 75 79

www.funerariaoria.com



ALEGIATIK OAMENDIRA

Alegiako Mendi Asanbladak antolatuta, igandean, Goierriko bihotzean dagoen Zeraingo Oamendira igo ziren. «Ibilbide polita, ikuspegi zoragarriekin» egin zutela kontatu dute asanblakoek, eta «hurrengorako gogoz» daudela gehitu. ATARIA



INTXURRE KORRIKAREKIN

Alegiako Intxurre futbol taldeko kideek bat egin nahi izan dute Korrikarekin. Larunbat goizaldean, 05:15ean pasatuko da euskararen aldeko lasterketa Alegiatik. Intxurreko kirolariek argazkiak atera dituzte Korrikari babesazaltzeko. ATARIA

Igandean Bizkaia aldera irteera, Aizkardirekin

AMASA-VILLABONA // Zugastietatik abiatu eta El Regato, Eretza eta Ganeraneke gailurretatik ibiliko dira. 23 kilometroko luzera izango du. Izena emateko, 649 71 71 82ra deitu, edo Aizkardi elkartera joan beharko da, 20:00etatik 22:00etara. Gaur da izena emateko azken eguna.

Bihar Korrikako argazkiekin osatutako erakusketa, zabalik

IKAZTEGIETA // Ikaztegieta Euskara Taldeak herrian urtean ateratako Korrika argazkiak bildu ditu, eta erakusketa jarri du. Bihar, 15:30etik 17:30era egongo da zabalik, udaletxe azpiko aretoan. Gainera, Korrikako arropa erosteko aukera ere izango da.

Kexu dira bedaiotarrak, banda ultrazkarretik kanpo geratu direlako

Foru aldundiak, 'LandaGipuzkoa+' programari esker, 2.500 biztanletik beherako herrietan martxan jarriko du banda zabal ultrazkarra; Bedaio auzoa programatik kanpo dago

Eneritz Maiz Etxarri Bedaio

Hilabeteak dira Gipuzkoako Foru Aldundiak banda zabal ultrazkarra programa aurkeztu zuela eta, martxo amaieran, Asteasun ere eman zuten ezagutze- ra. Asteasuko baserria lehenengotarikoa izan da zerbitzua jasotzen. Foru aldundiaren asmoa Gipuzkoako 49 herri txikitako 2.040 baserritan gauza bera egitea da. Horretarako abiarazi zuten, duela lau urte, LandaGipuzkoa+ programa. 2.500 biztanletik behera dituzten herrietan azpiegitura berriak garatzea, eten digitala txikitzea, jardun ekonomiko berriak bultzatzea eta gizarte zerbitzuak hobetzea dute helburu. Bada, Tolosako Bedaio auzoa programatik kanpo dago.

Bedaio auzotarrek, dagoneko, eskaera egin dute Gipuzkoako Foru Aldundian, programa horren barruan sartzeko eskatuz. «Gaur egun Bedaiok bizirauteko duen zailtasunari aurre egin nahi diogu auzokideok, eta gure beharrak ez daitezela Tolosa bezalako hiri handi baten barruan bakarrik gelditu», eskatu dute.

Gaur egun, wimax sistema bidezko Internet konexioa dute Bedaion. Ia 100 biztanle ditu auzoak, eta horietatik 44k, 40 urte baino gutxiago dituzte.

«Bedaioitarrok ez dugu uler-



Bedaio auzora ez da iritsiko banda zabal ultrazkarra. ATARIA

tzen zergatik, administrazioak, gastuak murriztu behar direnean, ez duen inongo arazorik topatzen Bedaio bere udalerrir Tolosatik kanpo uzteko», argitu dute. Bedaioko haurren eskolaratzea ez da Tolosara bideratzen, eta osasun zerbitzua ere Alegiara bideratuta dute.

Aldiz, «landa lurretarako dirulaguntza eta proiektuak bideratzeko garaian, Bedaio, 18.000 biztanle dituen Tolosa hiri industrial baten barruan sartzen dute», salatu dute. «Administrazioak landa herri txiki bat bezala kontsideratu izan du Bedaio, baliabideak aurrezte aldera, eta ez ditu bere udalerrira, hau da, Tolosara, bideratu», diote.

«Bedaio auzoak, landa herriek bezalaxe, eguneroko bizimoduarekin jarraitu, eta aurrera egiteko duten arazoekin egiten du topo», azaldu dute, eta gaineratu dute: «Areago, 18.000 biztanleko herri handi batean irentsita dago. Bedaioren arazoak ezkutuan gelditzen dira; udalerritik kanpo, eta baita administratitzako hainbat erakunderen aurrean ere».

Bedaioaren kasuan, auzotarrek azaldu dute, ez daukatela «inoren babesik», eta «administrazioaren ahanzturan» gelditzen direla.

Bukatzeke, aldarrikatu dute, arazoak arazo, Bedaio duintasunez bizirik jarraitu nahi duen auzo bat dela.



harpidedun izateak badu saria zozketa

1 URDAIBAI BIRD CENTER

Bi lagunentzako bina sarrera



Aranzadi Zientzi Elkartea
Orueta 7, Gautegiz Arteaga
946 25 11 57 birdcenter.org

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **51**

2 DONOSTIAKO AQUARIUMA

Bi lagunentzako bina sarrera



www.aquariumss.com

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **52**

3 MENDEXA AVENTURA PARK

Bi lagunentzako bina sarrera



mendexapark.com
688 85 62 83
MENDEXA

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **53**

Parte hartzeko deitu **902-82 02 40** telefono zenbakira edo sartu www.ataria.eus webgunean • Aste honetako astearte, asteazken eta ostegun goizean. Saridunak ostiralean argitaratuko ditugu.

Ibarrako Bizi Nahi elkartekoek bi irteera antolatu dituzte

IBARRA // Larunbatean egun pasa egingo dute Logroñora. 09:00etan abiatu, Garesen geldialdia egin eta Logroñon bazkalduko dute. Bueltan, Lizarran geratuko dira. Bazkideek 25 euro ordaindu beharko dute; gainerakoek 30. Bestetik, ekainaren 2tik 4ra Benidormera joateko bidaia antolatu dute, 612 euroren truke. Epeza zabalik dago.

'Va Gera herri bat' ikuskizunerako sarrerak salgai

AMASA-VILLABONA // Ikuskizuna maiatzaren 3an eta 4an izango da, 22:00etan, Olaederra kiroldegian. Dagoeneko salgai jarri dituzte laguntza txartelak, Amasa kafetegian, Basajaun liburu dendan eta BIBE plataforman. Sarrerek 12 euro balioko dute, eta bildutako dirua Gaute-na Gipuzkoako Autismo Elkar-tearentzat izango da.

II. Mikroipuin lehiaketako sari banaketa, igandean

BERASTEGI // Iritsi da amaierara, Berastegiko II. Mikroipuin lehiaketa. Igandean emango dute sariaketaren berri eta, aurretik, 18:00etan, ipuin kontaketa eskainiko du Leire Zinkunegik; *Edurnezuriren ipuin berria* kontatuko du. Jarraian, 19:00ak aldera, bigarren lehiaketako sari banaketari ekingo diote, udaltzeko kultura solairuan.

400. urteurreneko irudien erakusketa zabalduko dute gaur

AMASA-VILLABONA // Gaur zabalduko dute Amasa-Villabona-ko 400. urteurreneko argazki lehiaketara aurkeztutako lan guztien erakusketa. Gurea zinema aretoko sarreran izango da, eta zabaltze ekitaldia eta sari banaketa 19:30ean hasiko da. Erakusketa irekita egongo da, Gurean ekitaldiren bat dagoen guztietan, maiatzaren 21a arte.



ERRETIRODUNAK, FESTAN

Azken lau urteetako ohiturari eutsiz, Leaburu-Txaramako erretirodun eta pentsiodunek irteera egin zuten Lizartzako Goikoetxea sagardotegira. Udalak antolatu ohi du eguna, eta autobusean egin zuten joan-etorria, 22 lagunek. ATARIA

Pilotalekuko argiak aldatu eta izena margotu dute Belauntzan

Egun batzuz itxita egon da Belauntzako pilotalekua, LED teknologiadun argiak jartzeko eta frontoiaren izena eta urtea berriro margotzeko; 5.000 euroko inbertsioa izan da

Iratzi Saizar Artola Belauntza

Pilotalekuko argiteria aldatu dute Belauntzan. Zaharrak kendu eta LED teknologiadun argiak jarri dituzte. Bestalde, frontoiaren izena eta urtea berriro margotu dituzte. Lan horiek egin bitartean itxita izan dute frontoia, baina, dagoeneko, denek erabiltzeko moduan jarri dute.

Berrikuntzak egiteko 5.000 euro inguru baliatu dituztela azaldu du Silvia Moneo Belauntzako alkateak. Aldaketaren arrazoiak argi ditu Moneok: «Orain arte zeuden argiei kosta egiten zitzaien guztiz piztea eta, kontsumorako ere, luzera begi-



Izena eta urtea berriro pintatu dituzte Belauntzako frontoian. I. SAIZAR

ra, inbertsio ona iruditzen zaigu». Lehen, sistema bakarra zuten frontoiko argiak pizteko: ostatuan edo udaletxean eska zitekeen eta, itxita bazeuden, ez

zegoen modurik argiak pizteko. Duela gutxi, orde, QR kodearen bidezko sistema jarri dute martxan, edonork, noiznahi, argiak pizteko aukera izan dezan.

1.500 euro jokoan, Ibarra

Erredakzioa Ibarra

Ibarrako merkatariek *Ibarraska* kanpaina jarri dute martxan. Kanpainan parte hartu duten dendetan erosketak eginda, 1.500 euroko txekia eskura daiteke, Mira bidaiek agentzian erabiltzeko.

Erosketa bakoitzeko, Ibarrraska bat emango dute dendariak, karraskatu eta egiaztatu egin be-

harko da saria tokatu den edo ez. «Zenbat eta gehiago erosi, orduan eta aukera gehiago egongo da sariduna izateko», azaldu dute antolatzaileek. Kanpainak saria atera arte iraungo du.

Hona hemen kanpainan parte hartu duten saltokien zerrenda: Leina estetika zentroa, Karlatz garagardotegia, Optika Ibarra, Oramahai Makiu, Bikoitz arrandegia, Joakin Tolosa harategia,

Bitxori, Danon Txokoa taberna, Mapfre, J.M. Barriola harategia, Eko Tolosa, Oreka belardenda, Errotatxo okindegia, Elduaran hortz klinika, Ibarra altzariak, Eugenio Uranga harategia, Ibarburu janaridenda, Lurdes liburudenda, Xabi Errazkin harategia, Goxobi, Kiribil ileapaindegia, Q Aliment, Tarukutraku, J.B. Barriola harategia eta Izarra Garajea.

Hilberriak eta urteurrenak

- I. URTEURRENA -

Cristina Mendizabal Echave

(Pedro Jose Alkizaletoren alarguna)
2018ko apirilaren 11n hil zen, 95 urte zituela,

Nahiz eta urtea pasatu den amona zu joan zinenetik, ez da izan egunik zutaz gogoratu ez garenik.

ZURE SENDIA

ASTEASUN, 2019ko apirilaren 11n.

hilberriak • eskertzak • urteurrenak

ataria jarrita Gipuzkoako 3 Hitzetan DOAN

Eskelak orain merkeago!	
TXIKIA (82mm X 64mm): 100 €	• Harpidedunentzat 50 €
HANDIA (124mm X 64mm): 150 €	• Harpidedunentzat 75 €
ESKERTZA (38mm X 64mm): 50 €	• Harpidedunentzat 25 €

bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu

Espainiako Txapelketa jokatu dute Tolosako jubenilek

Asteburuan Alacantera joango dira, eskubaloia jokalariek, lehen fasea jokatzerako

Imanol Garcia Landa Tolosa

Tolosa Eskubaloia klubeko jubenil mutilek Espainiako Txapelketaren lehen fasea jokatu dute, asteburu honetan. «Urte-tan belaunaldi honek amestu duen txapelketara iristea lortu dute», esan du Jon Iraola entrenatzaileak. «Horretarako, aurten Euskal Liga txapelketan goran egon behar genuela bagenekien. Hasiera nahiko kaskarra izan genuen, baina pixkana joan ginen bizkortzen, hartu genuen dinamika ona, eta liga hirugarren bukatu genuen». Jubeniletan dagoen maila gorenena da Euskal Liga.

Hirugarren postuan bukatu ondoren, Euskadiko Txapelketa jokatu zuten Tolosakoek. Aurrena bi multzo egin ziren, bakoitza lau taldeekin. Han aurrenak geratu ziren, eta, azkeneko fasea, orain bi asteburu jokatu dena, lau talderen artean jokatu zuten. Fase horretan bigarren geratu ziren, eta oso estua izan zen lehia. Usurbilen jokatu zuten astebu-



Tolosa Eskubaloia klubeko jubenil mailako taldea. ATARIA

ruan zehar, eta aurreneko partidari berdinu egin zuten, Zumaiako taldearen aurka, bigarrenengoan galdu egin zuten, gol batengatik, Zarauzko taldearen aurka, eta hirugarrenengoan Usurbil txapeldunei batengatik irabazi zieten partida. «Emaitez erakusten dute, oso maila parekatua genuela lau taldeek», esan du Iraolak.

Hain justu, lau talde horiek Euskadi ordezkatu dute Espainiako Txapelketan. Orokorre-

an Kataluniako taldeak nabarmendu ditu Iraolak: «Beste maila batean daude».

HIRU AURKARI GOGOR

Tolosakoek Alacanten jokatu dute, Espainiako Txapelketaren lehen fasea, asteburuan, beste hiru talderen aurka. Lehenengo bihar jokatu dute, bertako Agustinos Alicante taldearen aurka. «Valentziako bigarrenak geratu dira. Joan den urtean Espainiako Txapelketako finalera

iritsi ziren. Aurreko urteko batzuk senior mailara pasatu ziren, baina badaude jokalariek pare bat edo hiru sekulako kalitatea dutenak, eta aurten hor daudenak ere, eta ez da partida erraza izango», esan du Iraolak. Larunbatean La Roca talde kataluniarra izango dute aurrean. «Kataluniako hirugarren geratu ziren, eta oso talde indartsua da. Bideo batzuk ikusi ditugu, eta kilo askoko jokalariek dira. Oso zaila izango da irabaztea, baina gu

konfiantzaz gaude, eta gauzak ondo egiten baditugu, dena posible izan daiteke». Eivissaren aurka jokatzen dute igandean. «Balearretako lehenengoak geratu dira. Ez ditugu ezagutzen, ez dugulako lortu informaziorik, eta ea zer tokatzen zaigun. Zaila izango da, baina ilusioarekin goaz eta hori da garrantzitsua».

Guztira 32 talde izango dira, lehen, lehen fase horretan, lau taldeko zortzi multzotan banatuta. Multzo bakoitzeko irabazlea sailkatuko da, azken fasea jokatzerako. «Ea posible den lehen postu hori lortzea, gu behintzat saiatuko gara», esan du Iraolak. Jubenil taldeko entrenatzaileak garbi duena da, esperientzia berezia izango dela jokalarientzat. «Internetetik ikusten zituzten partidak orain jokatu egingo dituzte. Azkenean, urte askoan lanean aritzearen ondorioa da txapelketa hau jokatzea».

Tolosa Eskubaloia gazte mailako talde batek izan zuen aukera, Espainiako Txapelketa jokatzerako. «2011-2012ko kadete taldeak lortu zuen sailkatzea, eta Galiziarra joan ziren, partidak jokatzerako. Ez zuten partidarik irabazi, baina oso ondo aritu ziren, parez pare jokatu zituzten neurketak eta, gerora, txapeldunorde izango zenaren aurka bi golengatik bakarrik galdu zuten. Talde horretako jokalariek hitz egin dut egunotan eta, diote, betirako gordeta duten esperientzia bizi-tu zutela», azaldu du Iraolak.

Iñaki Olanoren bigarrena Gabirian

IV. Leharrei mendi lasterketa irabazi du, korrikalari altzotarrak, bigarren urtez jarraian

Aimar Maiz (Goierriko Hitzza)
Altzo

Gabirian larunbatean jokatu zuten, IV. Leharrei mendi lasterketa, 24 kilometroko ibilbidean, eta iazko irabazleak jaso zituen, aurten ere, bi besoak helmugan: Iñaki Olano altzotarrak. Olano

estu hartu zuten hurrengoek, minutu baten barruan sartu baitziren bigarrena eta hirugarrena.

137 korrikalarik parte hartu zuten mendi lasterketan, Goierri Kopa Trail lehiaketako laugarren proba baliagarrian, eta 134 korrikalarik bukatu zuten. Korrikarako eguraldi paregabea izan zuten, eta lokatza gehiegirik ere ez zuten topatu ibilbidean.

Iñaki Olanok iaz baino 18 segundo gutxiago behar izan zituen 24 kilometroko eta 1.300 metro positibodun karrera amai-



Iñaki Olano mendi lasterkari altzotarra, helmuga zeharkatzen. AIMAR MAIZ/GOIERRIKO HITZA

tzeko, 2.01.51 denbora eginez. Azken aldapa pikoaren zain, indarrak neurtuz joan zela aitortu zuen, bukaeran.

Bigarren, Ion Vegas aguraindarrak egin zuen, 2.02.50 denborarekin. Ibilbidea iaztik ezagutzen zuen, eta txapeldunorde ge-

ratzea lortu zuen. Julen Ozaeta durangarrak osatu zuen IV. Leharrei lasterketako gizonezkoen ohorezko hirukotea.



OSTEGUNA, 2019KO APIRILAK 11
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeka Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizalete
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetaledea: 687 410 022.
anoetaldea@ataria.eus
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arreata zerbitzua: **943 30 43 46**



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraui, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



Larunbat goizaldeko harra kendu dute gaztetxoek

Klika egin eta egin ari dira, egunotan, eskualdeko haur eta gaztetxoak, Korrika Txikietan; bihar izango dira gehienak.

Erredakzioa

Bi urteko itxaronaldia da Korrika, Euskal Herri euskaldunarentzat. Bi urte, begi-kliska batean lekukoa norbere eskutik beste batenera pasatzeko, eta furgonetari joaten uzteko, kilometroak luze egin ditzan. Zazpi lurraldeak zeharkatzen dituen etengabeko bidearekin batera, ordea, Euskal Herri euskaldunaren etorkizuna ere hauspotzen du Korrikak, Korrika Txikiekin.

Egunotan, larunbat goizaldeko Klikaren arnasa Tolosaldean sartu aurreko orduetan, eskualdeko ikastetxe eta herri guztiak Korrika Txikiak egiten ari dira. Irurak eta Anoetak elkarrekin egin zuten asteartean, elkarri lekukoa pasaz, eta Orendainen ere izan zuten lehen korrikapausoak emateko aukera, atzo. Gaur, Amasa-Villabonaren eta Zizurkilaren txanda izango da

KORRIKA TXIKIAK

Gaur. Amasa-Villabona (15:30) eta Zizurkil (15:30).

Bihar. Altzo (12:15), Asteasu, Tolosa (09:00), Ikaztegieta (15:00), Alkiza (15:00), Ibarra (17:00), Aduna (14:45) eta Amezketa (15:00).

Etz. Balarriain (18:00).



Goian, Iruratik Anoetarako tartea; behean, Orendaingo haurrak. ASIER IMAZ

OSTEGUNA 11

AGENDA

Deialdiak

Altzo. Loatzo musika eskolako tresna audizioa, 18:30ean, eskola azpian: pianoa.

Amasa-Villabona. Santioetako jai batzordearen bilera, udaletxean, 19:00etan.

Amasa-Villabona. Opera proiektua, 20:00etan, Gurean: *Aida*.

Ibarra. Loatzo musika eskolako tresna audizioa, 18:30ean, kultur etxean: gitara.

Tolosa. 19:15ean eta 21:45ean, zine foruma, Leidorren: *Trintalumes*.

Tolosa. Errepublikazaleen foroaren hitzaldi zikloa, kultur etxean: *Erbes-tea, 80 urte eta gero*.

Zizurkil. Loatzo musika eskolako tresna audizioa, 18:30ean, Beheko elizan: txistua.

EGURALDIA

Iker Ibarluzea

Gaur. Giro motel eta tristea. Egun osoan ipar-mendebaldeko haizea nagusituko da eta horrekin hodeiak nagusi izango dira zeruan, giro estalia utziz. Hodei horiek tarteka euria utziko dute, xirimiri moduan edo zaparrada txikitik, gehienbat arratsaldean. Tenperatura maximoa: 12-14 gradu.

Bihar. Eguraldiak nabarmen egingo du hobera. Egun-sentian eta goizean oraindik hodei dezente agertuko da zeruan, eta tarteka euri langar pixka bat egingo du. Egurditik aurrera haizeak ipar-ekialdeko ukitua hartu, atertu eta ostarte zabalak irekiko zaizkigu, egunaren amaieran zerua hodei gutxiarekin geratuz. Tenperatura antzeko balioetan mugituko da, edo zertxobait gorago, eta maximoek 13-15 graduan joko dute goia eguneko erdiko orduetan. Gauean zerua garbi geratuko denez, dezente hoztuko du.

ATARIA IRRATIA

09:00-11:00. Pasahitza. Eskualdeko berriak, Iker Ibarluzearekin eguraldia, solasaldia helduekin, Tolosaldea Garatzenen tartea, Korrikaren jarraipena, Joxemi Saizarrekin Tolo-

saldeko pertsonaia historikoa eta Joxemari Iturralderekin *Astero liburub*.

11:00. Hamaiketako. Tolosaldeko azpieskualdeei eskainitako tartea. Gaurkoan: Tolosa.

12:00-13:00. Entzuteko jaioak.

13:00. Erakutsiz ikasi. Eskualdeko ikastetxeetako gazteak protagonista diren saioa. Gaurkoan: Uzturpe ikastola.

15:00. Playback Ataria. Adrianna Gaultier Djaren musika saioa.

16:00-18:00. Zebrabidea.

18:00-20:00. Goizeko onena.

20:00. Erakutsiz ikasi.

28 KANALA

13:30. Gaurkoan Tolosaldeko

16:30. Amaia DJ

17:30. Gaurkoan Tolosaldeko

21:30. Gaurkoan Tolosaldeko

22:00. Urrutiajunbe

22:30. Ajoarrieroa (Haizea Zamora)

23:30. Gaurkoan Tolosaldeko.

FARMAZIAK

Gaur

IBARRA. Egunekoa.

Eduene Mujika Martinez.

Euskal Herria kalea, 3.

Telefono zenbakia: 943 67 0915.

TOLOSA. Gauekoa.

Lourdes Azpiroz Galarza, Amarotz auzoa, 9.

Telefono zenbakia: 943 67 5118.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

ZORION AGURRAK

943 65 56 95 · ataria@ataria.eus

zozketak

Atarikideentzat bi afari bonu ditugu

ERROMERIA
Apirilaren 13an, Tolosan
15€

'Erromeria' egunean bi pertsonarentzako afaria

Apirilak 13, Larunata
21:00 • Tolosa, Zerkausia.

Bai, nahi dut!
Euskara?
Ikasi, euskara eman izena aek-n

'AEK Euskaltegirako bi matrikula' zozketan

Zozketetan parte hartzeko **OSTEGUNA 13:00ak** arte: **943 65 56 95** edo **www.ataria.eus**